

Xabier Lizardi

BI AHIZPAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen jatorria:

<http://www.jazzfree.com/jazz9/arrain/>

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00223.htm>

ANTZEZKIGILEAK

PANTXIKE.

ANDRE MADALEN.

MANTTONI.

Hiru Mutikoak: **XABIER —IÑAKI — YONTXU**

ALKATEA.

DONOSTIAKO ALKATEA.

LEHENENGO EKITALDIA.

(Etxe-barru txiro, baina txukuna: mahaia, aulkiak eta abar Ezkerretara, ate bat. Atzean, beste bat, eta leihoa ere, biak baratzera urratuak). (Pantxike ta Manttoni, ahizpa Nezka-zaharrak urterik haiei antzematen ez da erraz —elkarren aldamenean eserita daude, dirua mahai-gainean zenbatuz. Zenbatzailea, Pantxike, Manttoni, ahizparen beso-gainetik begira).

I.

PANTXIKE TA MANTTONI.

PANTXIKE: ... eta bederatzi, berrogeita bi ... ; eta bost, berrogeita zazpi ... ; ta zortzi...

MANTTONI: Bart arratsean adina, Pantxike?

PANTXIKE: ... berrogeita hamabots ... ; eta zortzi... Bai, Manttoni bart arratseko kontua

ateratzen zaidan. Honenbeste ez geninan jaso San Juan aurreko azokaz geroztik.

(Zenbatzen jarrai beza, isilik, Manttoni oro begi. Halako batean, herriko erlojuak kanpai bat: Manttoni'k burua jaso).

MANTTONI: Pantxike!...

PANTXIKE: Manttoni ... ? *(Bere zereginari utzi gabe).*

MANTTONI: Zer ordu dinagu?

PANTXIKE: Al zekinat!... *(Isilune laburra)* Bedera-tzi eta erdiak, ustez.

(Diruak poliki antola bitza mahai-kutxan —kaxoian—)

MANTTONI: *(Jeiki, zapi bat hartu, eta erridiei hautsa kenduz).* Ez zekinat irudipena dudan, baina, Amabirjinetako prozesioaz geroztik, burua etzaukanat bere onean. Izan ere, halako eguzkiak hituen egun hartan!... Hamar eta erdiak direla esan bahidan, ber-

din-berdin sinistuko nian... Halaz guztiz ere, hamar eta erdirik ez dela banekinan!

PANTXIKE: Bederatzi eta erdikoa izan dun.

MANTTONI: (*Etsi-etsian*) Bederatzi eta erdikoa, alegia

PANTXIKE: (*Isilune baten ondoan*). Hi ez hago onik, Manttoni

MANTTONI: Onik ez ote nagon, ba?... Ez ezan uste: buruak ematen zidan hori batzuetan...

PANTXIKE: Leandro jauna deitu behar huen... Urteak,

MANTTONI: adina dabilkin hik atzetik!

MANTTONI: Adina atzetik! Zertarako behar ote natzaion?...

PANTXIKE: «Okel-erre»neko atsoa ere horrelaxe ibilia dun. Azkenean, sendagileak «rizinoa» eman zionan, eta bertan bota zizkinan haize txar guziak.

MANTTONI: Haizeak? Hizea besterik ez, Pantxile? (*Sorbaldak uzkurtuz*) Izan ere, «Okel-erre»neko atsoa ... !; behiaren gorotza ere, sendagileak emanaz gero, pozik jango zikenan hark...

PANTXIKE: Badakin, Manttoni, ama zenak ere,
urteek menderatu zutenean

MANTTONI: Enetxoa! Amarena ez dun berdin:
hura bi alaba eginik huen!

PANTXIKE: Eta zer zion?

MANTTONI: Ai!, asko, Panlxike!... Leandro jaunak
ondotxo zekin... (*Aldapena*) Baina, horiek
ere, enetxoa, hartzeko kanpaia denean
ditun azkarrak! Gainontzean?: inoren osa-
suna zaintzeko, bazekinat nik horiek hain-
bat... Zer egiten dinate, ba?... Zereko jakin-
tsuak!... Jendea asperrarazten besterik
etzekinate eta ... !

PANTXIKE: Adi ezan, adi ezan... Gazte, berri,
Madrilgoa edo delako hori... —zera,
«Boxt»eneko goian bizitzen jarri dena... —
hori azkar porrokatua omen dun, ba...

MANTTONI: Azkarra, beraz? Azala, esan
bahuen!... Bazterretan neskatxa gazteei
goxokeriak esaten... ; horretan azkarra
omen dun. Katalinek dioenez!

PANTXIKE: Uuu!... Katalinek! Ikusi ere egin al din,
bahura?

MANTTONI: Ez; ikusi ez!... Hitz egin ere!... Eta, guzia jakin nai ba-dun, besotik heltzera egin eta ozta-ozta ihesi ahal izan omen zionan!

PANTXIKE: Ut, txatxua hi berriz! Dena sinisten dun! Hark gizonezkoari urreratzen ez utzi!

MANTTONI: Ba, ez dun bakarra... Hor zeuden «Atarramentu»neko neska, eta «Txepetx»enekoa, eta Ixabel bera ere, emakumea!...

PANTXIKE: Ixabel!

Mant-. Ea: Alkateak «señorito» hori herritik bidaliko ote duan ere zabaldu dun eta... Izan ere, nik beti esaten dudana: arrotz xankarne horiek dinete hemengo neskatxei esan beharra? ... Botako nitizken denak ibai zabalera?

PANTXIKE: Um!... Hiri ere zertxobait goxo esanez gero

MANTTONI: Ui! Hara bestearen ateraldia! Ez al zidatenan esan, izan, horiek baino galai ederragoak! Bai makinatxo batek!

PANTXIKE: Eta, nezkazar gelditu hintzen?

MANTTONI: Eta hi?... Honek eman zizkigun ederrak!

(Isilunea. Etxe-lanetan hasi bitez Pantxike, altzoan otarra hartu eta babarrun-zuritzen. Manttoni'k, etxegarbiketa buka, erratza baztertu, eta tresna oro antolatzen dihardu).

PANTXIKE: Bihar igande... —Oilaskoa hilko ote dinagu?

MANTTONI: Bai Pantxike, il dezagun... Hain xuxen ere, oilasko-gose nagon aspaldi honetan.. Eta zer da, guzia ere? Haragia baino garestiago ez zetorren, eta!

PANTXIKE: Ez garestiago, dion? Merkeago esan nahiko dun! Bai hainbat! «Kazkazuri» harakinari galde bestela... Lapur galdu bat besterik ez dinagu hori. Horrena gehiegikoa dun. Utziko al dinagu guzion artean etxea bete okel!

MANTTONI: Asmatuko liguken orduan ere hark lapurreta-bidea!... Baina, horiek horrela direla, noan oiloetara.

(Aterantz bihoa, «eskalaproietan» oinak sartuz. Irten-haginean, geldi bedi. Aizpak burua jaso du, eta biak beude adi. Baratzako ate-hotsa, gero oinhots astuna, gero hutsa. Berehala, norbaitek ataritik, ahots lodiaz):

ALKATEA: *(Ataritik)...* Eup! Ez al da inor bizi?

(Horren ondotik, isilune luzea berriro. Neskazar biak, beren hartan geldi. Atarikoak, ozenago:)

ALKATEA: *(Ataritik)...* Eup! Ez al da bizi inor?

(Manttoni'k nozbait ere burua atera beza:)

MANTTONI: Ene!... *(Burua iraduz berriro sarturik)*
Pantxike, Alkate jauna dinagu!

(Betor Pantxike'rengana. Honek babarrun-otarra mahai-azpian gorde

beza. Biak, eskuak mantalaz igurtzi ondoren, bihoaz baratza-aterantz, agurka. Alkatea ager bedi atean).

II.

PANTXIKE, MANTTONI ETA ALKATEA.

ALKATEA: Pantxike, Manttoni; barkatuko didazue zuek nahaspilatzera etorria...

MANTTONI: Gu nahaspilatzera, Alkate jauna? Bego isilik! Berorren etxean sartu dela egin beza. Hementxe; eseri hementxe...

PANTXIKE: Hemen, hemen: besaulki honetan hobeto egongo da. Eta, andre Ageda onik dago? Eta txikiak? Hain xuxen ere atzo ikusi nuen txikiena...

(Alkateak hitz egin nahi luke, baina tarterik ez diote ematen).

MANTTONI: Esaion Alkate jaunari, Pantxike, esnez behartuz gero, bere etxerako lain izango genukeela...

PANTXIKE: Horixe bai, alegia! Ez gehiegirik dugulako, baina...

MANTTONI: Haurrak zer diren badakigu; haiek, eman ahala garbitzen baitute!

(Alkateak berriro ere hitz egin nahi, baina alferrik)

PANTXIKE: Oraintxe joateko nindunan, hain xuxen ere, Alkate jaunarenera. Baditugu ilar batzuk berebizikoak, eta beharbada andre Agedak pozik hartuko lizkiguke. Badakigu berori oso zalea dena, Alkate jauna...

MANTTONI: Aurtendaino, bederik, zerbait eman izan digu lurrak. Hemendik aurrera lanak... Hor gaineko etxe zahar hori egingo balute, agur gure eguzki goxoak!

PANTXIKE: Nolanai ere, guzien onerako ez al da ondo ematen duten baratzak ez ondatzea?

(Alkateak hitza atera nahi: besteak tarterik ez ematen):

MANTTONI: Bai nik uste! Eta..., Madrildarra omen da, hain xuxen ere, gaineko sail hori erosi duena...

PANTXIKE: Madrildar nahiz donostiar, erosteko eskubidea badin. Baina... nolabait, Alkate jauna, gain horretan etxerik egitea galera-zi ahal ba-liezaioke...

MANTTONI: Hori, hori, bada! Ez da guregatik bakarrik, noski: berorrek badaki, Alkate jauna

ALKATEA: Bai, bai ikusiko dugu, ikusiko dugu, inondik ahal baliteke... Baina, orain-oraingoz, badut beste arazo bat zuekin lehena-go erabaki beharra... Jakin nahi nukeena... tira.... nola esango nuke?..., alegia, mesedetxo bat egin nahi ote didazuen...

PANTXIKE: Mesedetxo bat...

(Elkarri kezka bezalako begiraturik)

ALKATEA: *(Isilune baten ondoan)* Hara: hauxe da guzia. Udako oporraldia *(barkazioak)* bitarteko, mutiko umezurtz bat etxean artuko al-zenukete...

*(Isilunea. Ahizpak, elkarri ondo begi-
ratu ondoren, atsekabez hitz egin
biezaiote)*

MANTTONI: Ai, ai, ai! Ai ene!... Eta non sartzeko guk haur gaixo hori?... Biok ere oxta-oxta hartzen gaitu txabola xar honek-eta...

PANTXIKE: Izan ere, nolatan hartu etxean inoren haurrik, non etzan ona-eta ez eskaintzekotan?... Gure ezerez gorrian!... Hori dago bada!

ALKATEA: *(Zer-erantzun bila, baina aurkitu ezinik)*
Tamala da...

MANTTONI: Eta nondik norakoa genuke haur hori?

ALKATEA: Donostiakoa... Hogeit bidali dizkidate, eta han-hemen banatuak nituen guziak. Zuei ez dizuet adierazi ezer, tokiz oso urri zaretela bai banekien. Baina, azken orduan, zer gertatuko-eta, Etxezuriko atsoa gaixotu... Gaur goizean; mutil kozkor horiek iritsi direnarekin batera! «Etxezuriko»koa hiru hartzekoa nuen, eta horra, orain hirurok beste norabait zuzendu

behar... Ni bi hartuta nago, eta gehiagoren-
tzat tokirik ez... Donostiako Udalaren esko-
letakoak dituzue, eta nik ere, jakina, hango
Alkatearekikoa ondo egin nahi, eta...

PANTXIKE: Hauxe da, ha, lana; eta guk inola ere
ezin!

MANTTONI: Besterik inork herrian ez ote litzazke
hartu?

ALKATEA: Haur bakoitzeko eguneko duroa eta
saria

(Isilunea. Ahizpak geldirik)

PANTXIKE: *(Erruki-hasperen larri bat boteaz)* Ain-
geru gaxoak!

MANTTONI: Kale gorrian uztea ere Jainkoak ez din
agintzen, ba!

PANTXIKE: Bihotzik duen kristauak ezin lezaken
hori egin, Manttoni

MANTTONI: Atari soilean, alajaina, errukarri
horiek! Gurera ez-eta, nora joan behar
dinate, bada, esaidan? «Txanbolin»enera?
... «Prakax»enera?...

PANTXIKE: «Txanbolin»enera, enetxoa!

ALKATEA: Gizarajoak, zortzi baditu bereak-eta...

MANTTONI: Ez dago zer esanik gehiago, tira!...

Mutiko gajo horiek bidal biezaizkigu, Alkate jauna!

ALKATEA: Baina... hirurak behar dituzue?

MANTTONI: Hirurak, hirurak!... Zer egingo dinagu, ba, Pantxike?

ALKATEA: Non sartu behar dituzue, ordea?

MANTTONI: (*Eskua bularrean duela*) Bihotzik badi-nagu, ala ez dinagu, Pantxike?

ALKATEA: Bai, hori hai; baina oztopo haunditxoak izango da zuentzat... Tokirik-eza...

PANTXIKE: Tokia? Antolatuko dugu, nola hala! Manttonik dioena, Alkate jauna: bularpean zerbait dugunok... Beheko gela, haundi-askia da... Gu mandioan etzan gintezke.

ALKATEA: Mandioan, emakumea? Eta ez al litza-teke egokiago mutiko horiek han sar-tzea?...

PANTXIKE: Gaixoak! Ikusiko balu, Alkate jauna, gure mandio hori!... Eguzkiak eta haizeak bere mende dute zeharo hartua: ez al da hala, Manttoni?

MANTTONI: Ametsetan ere, berorrek ez luke han bere burua ikusi nahi... Baina, moldatuko ahal gaitun, enetxoa! (*Ahizpari*) Ez bedi estutu, Alkate jauna.

ALKATEA: (*Zutik*) Atsegin haundia eman didazue: oso zarete onak eta bizkorrak. Etxean ditugu mutilok: berehala ekarriko dizkizuet.

(Isilunea. Alkatea aterantz)

PANTXIKE: (*Ez-arian bezala*). Egunero duroa esan du, ez da hala, Alkate jauna?

ALKATEA: (*Geldituz*) Bai, haur bakoitzarengatik egunero duroa. O, eta txintxo ordaintzen duen jendea da! Ea, begira: Donosti bateko Udalak!... Jakina, nahikoa nahaspilatuko zaituztela mutil horiek; baina hilabete azkar joaten da...

MANTTONI: (*Isilune baten ondotik*) Hilak zenbat ditu gaur, Pantxike?

ALKATEA: Dagonilak (*Abuztuak*) hogeita seigarrena, egutegiak gezurrik ez ba-dio.

(Ahizpa biak isilik. Badirudi era bereko zenbaketak egiten ari direla. Alkateak aterantz egiten du).

ALKATEA: Esandakoa, bada: berehala hemen gara.

PANTXIKE: Bai, bihoa Alkate jauna, haur gaixo horien eske, guzia antolatuko dugu eta.

ALKATEA: Bost minutu barru hemen gatoz.*(Bihoa).*

III.

PANTXIKE TA MANOLI.

MANTTONI: Bai, egina zagon, Pantxike: haur errukarri horiek, nola utzi behar genizkinan, bada, atarian?

PANTXIKE: Hago isilik! Alkate jauna hori esaten ari zela, xamurtu zaidan barren guzia. Pozik ikusi izango nizkinan orduantxe bertan hirurok atetik sartzen!

MANTTONI: Nik dakizkidan zenbaitek ez zinan, ez baiezkoa hain erraz emango...

PANTXIKE: Bai; irrikitzen nagon, zein etxeetan hartu dituzten jakiteko. Zeken asko baitzagon bazterretan: zeken asko!

MANTTONI: Entzun dun: Etxezurikoak, alajainena!, hiru hartzekoak omen hituen... Baldinbaitere! Haiek duten etxea izanda: hau adinako lau badun-eta. Hamabi hartu balizkinate ere!...

Banoan, banoan oiloetara, mutiko horiek iritsi bitartean. (*Atetik*) Hara, berriz: andre Madalen dinagu.

(Bihoa. Pantxikek babarrun-otarrari ekiten dio berriro).

ANDRE MADALEN: (*Ataritik*) Bazoaz, Manttoni?

MANTTONI: (*Berdin*) Oiloetara, andre Madalen, oiloetara: berehala nator. Sartu, sartu, Pantxike hor duzu-eta.

(Andre Madalen ager bedi).

IV.

LEHENGOAK ETA ANDRE MADALEN.

ANDRE MADALEN: Egun on: zer dugu, Pantxike?

PANTXIKE: Hementxe ari gara, andre Madalen...

ANDRE MADALEN: Babarrun-zuritzen?... Adi ezazu, adi ezazu eta zuek hartzen omen dituzue Etxezurira behar zuten mutikoak, eee?...

PANTXIKE: Ene, mila bider! Badakizu dagoeneko? Nork esanda?

ANDRE MADALEN: Matxin Bizardok esan dit: orain-txe topo egin dugu biok.

PANTXIKE: Eta Matxin Bizardok nondik zakin?

ANDRE MADALEN: Erretore jaunaren bidez, noski, erretoreari alkateak esanda.

PANTXIKE: Tira ba, bai: egia da. Pentsa ezazu, Alkate jaunak bere larritasuna adierazi digunean! Eta bakarra hartuko genuelakotan zetorren gizarajoa. Baina, errukia tartetik denean, andre Madalen ... !

ANDRE MADALEN: *(Batere sinisten ez diotelarik)*
Horra ba!... *(Eser bedi)* Eta, non sartu behar dituzue!

PANTXIKE: Antolatuko dugu zer bait, ez dago estutu-beharrik... Eta, esan, esan, zuk jakingo duzu-eta: zeinetan-beste hartu dituzten...

ANDRE MADALEN: Haurrak, alegia?... Bada..., bata Alkatea, bestea Erretore jauna, biok bina. «Ttonttor»enekoak, bat. Herrenaren alargunak, hiru. Eta zuek ... ; baina zeuon berri bai al dakizue... A eta, zera..., «Xukutx-eztul»enekoak, «Argiña»neko atsoak...

PANTXIKE: «Argiña»nekoak zenbat?

ANDRE MADALEN: Bakarra.

PANTXIKE: Bakarra? Xuhurra, ez bestelakoa!... Eta «Xukutx-eztul»enekoa ere esan duzu ... ?

ANDRE MADALEN: Bai: lau hartzen ditu.

PANTXIKE: Baldinbaitere! Hark ez hartzezkerotan! Inoizko zimelkerien ordainetan, non-bait! Eta nork gehiago?

ANDRE MADALEN: Nik dakidanik... (*Atarian hotsa Andre Madalen jaiki bedi*) Hara, hor dituzue mutikoak! Banoa ni.

MANTTONI: (*Ataritik*) Sartu, sartu, eder horiek! — Ederki eman ere!, ez jauna, ez: berori aurretik.

(Alkatea sar bedi, atzetik Manttoni duela, eta hurrena hiru mutil kozkor, seinatik bederatzina urtekoak. Bi zaharrenek begiak noranai dabizkie, ikusminez. Txikiena, negarra dariola).

V.

LEHENGOAK, MANTTONI, ALKATEA ETA HIRU MUTIKOAK.

(A. Madalenek, berehala alde).

ALKATEA: Hauxe duzue etxea, mutikoak. Andereño txintxo hauek hartu nahi izan zaituzte. Egun on, Madalen.

ANDRE MADALEN: Jainkoak digula guzioi.

(Bihoa, irteterakoan ate-atean pitin baten gelditzen delarik. Mutikoak elkarri egotzita beude).

PANTXIKE: Ez beldurtu, eder horiek, ez beldurtu. Ikusiko duzue zein ederki egongo zareten hemen. (*Zaharrenari*): Izena zer duk hik, maite?...

IÑAKI: Mendiburutar Iñaki, andrea; donostiarra, eta berorren mirabe, zernahitarako.

PANTXIKE: Alajaina!, ez dun hau oso tuntuna. (*Bigarrenari*): Eta zuk?

XABIER: Ni naiz... Xabiartxo.

ALKATEA: Alkortatar Xabiartxo. Aita itxasoan galdua du. Ama, sare-konpontzalea. Bestearena, oilo-saltzailea.

MANTTONI: (*Txikienari*): Eta zu ttipitto, nor zaitugu? (*Haurra isilik*) Hara!, katuak jan dio mingaina... (*Besteei*): Mingainik badu, ala ez du?

IÑAKI: Bai, bai: izketan ondo daki orrek, gogoak ematen dionean.

MANTTONI: Triste al hago, ba, gaixo hori? Amarengana aurki joango haiz berriro, gizona.

ALKATEA: Ez: ama hila du honek. Yontxu du izena. Abizena..., ahaztu zait. (*Paper batzuk sakeletik atera eta Pantxikeri daramazkio*) Hara: guzien nondik-norakoak hor-

txe jartzen ditu garbiro. Ea, bada, Pantxike, Manttoni: nitaz behartzen bazarete, deitu, noiz-nahi. Eta zuek, mutikook... Baratzera pixkatean bidaliko bazenitukete, horixe onena.

MANTTONI: Ederki esana. Hartaraxe etxe berriaz etsiko dute errazena.

ALKATEA: (Maitero) Loreei pakean utzi behar zaie, gero!

(Bihoaz Iñaki eta Xabier, zalaparta bizian, baratzera. Yon, geldirik ate-aurrean. Oso da txikia. Besteengana ez ausartzen, baina pozik joango ote litzatakeela ere badirudi. Tarte luzean, besterik ez bedi entzun, bi zaharrenen oihu alaiak baizik. Pantxike'k berriro babarrun-otarrari bekio. Manttonik mantala erantzi, jantzi berriro, aulki hori honantzatu, lehengo tokiratu berehala Biek dirudite pittin bat beren onetik ateraraziak. Halako batean, mutikoen garra-si biziagoek ikaratzen dituzte).

PANTXIKE: Ikus ezan non dabiltzan txerren horiek.

MANTTONI: *(Aterantz doala)* E, e! Bihurriak, alae-nak! Hortik ez dela ibili behar! Harrapatzen badizutet atzealdea! *(Urduri sartuz)* Letxu tartean, makilka, Jaungoiko maitea!

(Bat-batean, txikiak laisterrari ekiten dio, besteekin jostatzera joan-beharrez. Baina, Pantxikereren deihadarrak zakarki geldiarazten du):

PANTXIKE: Aizak, aizak, txepetx! Hator hi honantz, babarruna zuritzen laguntzera.

(Txikia betor Pantxikerengana, begiak lurrera dituela, eta exer bedi haren oinetan)

MANTTONI: *(Berriro aterantz)* Ea mutikoak. Zatozte pixkatean. *(Berriro betor barnerantz)* Non lo egin behar duten erakutsiko zienat.

PANTXIKE: Erakutsiiezaien, bai.

*(Iñaki betor aurrena, atzetik beste
biak laisterka bizian).*

XABIER: *(Arnas-estuka)* ikusi al duk nolako ura-
zak?

IÑAKI: Haien buruak! Ez zaudekek txarrak, olio-
ozpinetan.

MANTTONI: *(Zain dagokie eta, behar bada berak
nahi baino zakarkixeago, ala dietsa:)* Begi-
ra gero, ez zaitzatedan nik harrapatu berriz
nire letxueri ostikoka.

*(Mutikoek burua makur. Manttoni
eskuneko aterantz bihoa)*

Zatozte, ea: zuen ohetokia erakutsi nahi
dizutet: mandioan duzue.

*(Bihoa. Bi mutiko zaharrenak atzetik.
Zurubi estuan gorako hotsa Pantxike
eta txikia bakarrik geldi bitez, biok
babarrun-zuriketetan).*

PANTXIKE: Yontxu dut izena, beraz? (*Muttikoak buruaz baiezkoa ozt-ozta, neskazaharrari begiratu gabe*) Yontxu... eta, zer gehiago? (*Muttila isilik. Orduan, Pantxike, Alkateak emandako agiriei begira has bedi*) Intxaustinekoa, ez da hala? (*Buruaz, baiezkoa. Islilunea. Babarrun-zuriketa, eten-gabean. Pantxikek, astiro, goitik behera mutikoa azter beza*) Eta norekin bizi haiz, ba, txiki? Amonatxoarekin? (*Besteak ez erantzun*) Izekorekin? (*Buruaz, baiezkoa*) Eta nolakoa da, ba, zuen etxea? Behiak ba al dituzue?... Yontxu'k- (*Burua jaso, eta, bat-batean atsoa harriarazten duelarik, haren mutur-muturrean parre-purrustaka*).
Ja, ja, ja! ... Hauxen da barregurea!... Behiak, alajaina, Donostiko kalean!!

(OIALA)

BIGARREN EKITALDIA

LEHENGO TOKIA BERA.

HILABETE GEROAGO.

I.

IÑAKI ETA XABIER.

(Iñaki ta Xabier, batak erratza eta besteak zarpil bat eskuan dituela, elkarren harrapazka dabiltza, gela betean, barre eta garrasi eta zala-parta).

IÑAKI: Eeee! Ikutu haut! *(Geldituz)*

XABIER: Ez, jauna! Zapiarekin! Horrek ez dik balio.

IÑAKI: *(Berriro erasoaz)* Ez du balio? Eta honek?

XABIER: *(Itzul-eginik, isekaz)* Eeee! Eeee! Harrapatu ezetz! Harrapatu ezetz!

IÑAKI: Ezetz? Orain esango diat!

XABIER: *(Aulki baten gainera igo bedi)* Koxka!

IÑAKI: Buru haundi arraioa!

XABIER: Harrapatu al nauk?

IÑAKI: Jeitsi, gauza ba haiz...

XABIER: Je, je!... Hori.... nahi badut!

(Iñakik zakarki eraso bekio. Xabierrek lurrera jauzi egin beza. Berehala, berebiziko zalapartaz, lehen baino areago, ekin bekie elkar hatzibeharka. Aulkiak hankaz gora, mahaia iraulita, ontzi, ogi-otar eta abar lurrera-bidean...

Bat-batean, haizeko ate-zuloan, Manttoni ager bedi. Ikaratuta geldituko da.

Iñaki'k orduan, bere zarpila jaso, eta mahai iraulia sendoro igurtzi beza.

Xabierrek, arnas-estuka, erratza berriro eskuratuz, bazterrak garbitza)

II.

LEHENGOAK ETA MANTTONI.

MANTTONI: *(la hitz egiteko ere gauza ez dela).*

Nire Jaungoiko maitea!!... Baina..., baina.... baina....!!!... *(Hitzik ezin, eta isil isilik has bedi, aulkiak, ontziak, mahaia eta abar jaso eta bere tokiratzen. Guzia oso zuzendu artean, ez zaio arnasa bere onera itzuliko).* Hauek etsaiak, Jauna!... Baina, egunero-egunero, deabruarena egiten arkitu behar ote zaituztet?... Non da Pantxike?...

IÑAKI: *(Manttoniren ahotsa barregarriro berdinkatuz)* Nongo Pantxike gero, andrea?

MANTTONI: Hara... zera... ! Pailazo motela, ez besterena! *(Xabierei)* Non da Pantxike?

XABIER: *(Besteak bezalatsu)* Andre Pantxike, beraz? *(Burua nahastu beharreko garrasiez)* Oiloetara joan da! Oiloetara joan da! Oiloetara joan da!

(Mutil biok, elkarri eskutik heldu, eta garrasika ekin bekiote neskazahar gaixoaren inguruka).

BIAK: Oiloetara joan dala! Oiloetara joan dala!

MANTTONI: Baina..., Jesus, ene! Isilduko al zarete, gogaikarri alaenok? Behin esanda ere: «oiloetara joan da»; ez al da nahikoa?

IÑAKI: Jee, je, je! Oiloetara...?. bai zera! Ez, ez, ez,! Txanbra berria jantzita alde egin du

XABIER: Setazko txanbra! Paparra agirian duela!

MANTTONI: Hago isilik, lotsagabea

IÑAKI: Ezta, ezta, ezta!Gezurra hori ere! Ja, ja, ja!.

XABIER: Egia, egia! Donostiako Alkatea omen datorkigu etxera

IÑAKI: laufiii! Hau duk umorea!

MANTTONI: Donostiako Alkatea? Nork esan dizue hori?

IÑAKI: Petratrixok esan digu, Petratrixok.

XABIER: Petra begi-okerrak, andretxo!

MANTTONI: Donostiako alkatea gurera! Ederki eman ere...! Petratrixoren asmabeharrak... Guretzako dago Donostiako Alkate jauna! Hobe bai, egia balitz!... Baina, horiek horrela direla, ba al dakizue zer egingo

duzuen orain, txintxo-txintxo? Patata mordoska bat baratzatik ekarri... Aguro, ordea

*(Iñaki ta Xabier laisterka bihoaz,
atzeko atetik)*

IÑAKI: *(Burua berriro azalduz)* Hara, hara!... Azaldu da, azaldu da!

MANTTONI: Nor azaldu, gero?

IÑAKI: *(Garrasi bizika)* Pantxike azaldu da: gure Pantxike!

(Iñaki berriro eztuka bedi. Geroxeago Pantxike dator).

III.

MANTONI ETA PANTXIKE

MANTTONI: Nondik hator, enetxoa?

PANTXIKE: Oiloetatik. Nondik etortzea nahii dun?

MANTTONI: Oiloetan hintzen, beraz...

PANTXIKE: Yontxu etorri al da?

MANTTONI: Non dun, ba?

PANTXIKE: Erosketan. Baina hark ez din behinere presarik. Hain toki txikian horrelako gibel haundia ezkutatu litekeenik ere! Buruak ematen diona beste-besterik ez din egiten...

MANTTONI: Hark, hori? Eta besteok, zer egiten dinare, ba?... Hemengo iskanbila eta iraulketa ikusi izan bahitunan, arestian

PANTXIKE: Zorarazi behar gaitizten.

MANTTONI: Guzia lurrean, hankaz gora: mahaia, aulkiak, ontziak... Deguntxoak porrokatu behar zigunare azkenerako!

PANTXIKE: *(Aulki bat aztertuz)* Izan ere, irau behar din honek, holako txerrenekin?

MANTTONI: Gaiztakeriak bakarrik poz-ematen zionate. Eta, ateraldi batzuk badizkinate gero! Halakoak nondik datozkien ere!

PANTXIKE: Donoxtiarren malizia dun hori

MANTTONI: Donostiar kaxkarinkeria!

PANTXIKE: Guk ez bezala, zenbaitek honezkero burua galdu zinan.

*(Berriro, ataritik, mutilen jolas-hotsa.
Lehen bezala)*

ATARITIK: (E, eee! Harrapatu haut. Ez, jauna —
Buruhandia, ez besterena!— Hator, hator,
Pinto! ...)

*(Gero, hots hori osten bedi,
urrutiratuz).*

MANTTONI: *(Neka-neka eginda)* Ai ahizpa... Burua
nik baino sendoxeago behar din, bizimodu
honetarako...

PANTXIKE: Bai nik baino ere. Honela jarraituz
gero, aurki naun Santa Agedan

MANTTONI: Eta noiz aldegin behar duenik
ere?...Ez al din inork ezer adierazi?

PANTXIKE: Atzo, alkateak... Aurki etorriko ahal
zaizkie bila, baina noizik ez jakin.

MANTTONI: Hilabete bihar din ate

PANTXIKE: Ezin esango dinagu ezer, egunekoa
ordaintzen duten bitartean...

MANTTONI: Egunekoa ordaindu! A, gaixoa!: berri-
ro egin beharreko tratua bagenu...!

PANTXIKE: Utzion horri, osasuna eta pakea gal-
tzen ez ba dizkigute betiko!...

MANTTONI: Odol gaiztorik ordaintzen al dinate ba, duro zikin horrekin?

PANTXIKE: Bai: eraman ditzatela lehenbailehen. Honela ez zagon gauza onik?

MANTTONI: *(Hormeikarek begiratzen diela)* Etxeak ez liken zutik iraungo beste hilabetean.

PANTXIKE: Buruari eraginez, mahai-aldera bihoa, arkatzaren eta paper-punta baten eske. Betor berriro eseritzera, eta bere baitan ari balitz bezala:) Hiru bosteko, hamabost... *(Ahizpari)* Zer gastatu huen atzo?

MANTTONI: Nikolaxarenean, hiru laurleko...

PANTXIKE: Ai, Jaungoiko maitea!... Hiru bosteko, hamabost... Hamabosti hiru kendu eta... Hamabost hiru ...

MANTTONI: Ogitan, bi laurleko... Jarri al dun?... Hamabiri bi kendu eta... A, eta... Atzo, igande, haragia ere bageninan: lau laurleko... Olioia, bi... Zenbat gelditzen zain?

PANTXIKE: Hamarri sei kenduta... *(Isilunea)* Eta azukrea?... Eta kafea?... *(Zenbaketak buruz eginik)* Zera...!, gerenetik jarri beharra, gainean...

MANTTONI: *(Bertaratus)* Benetan, gerenetik har gaitun?...

PANTXIKE: Ea.... erorrek ikus: hamasei laurleko eta lau txakur haundi...

MANTTONI: Hamasei eta... Ene, ene!... Elorrioa zaukanagu, alajainena!...

PANTXIKE: Eta, adi ezan.. Hori oiloen eta txerriaren jana sartu gabe... Kontu garbia egingean, horiek ere barruan behar lieken!

MANTTONI: Nik hala uste, ahizpatxo: nik ala uste!... Hauxe da lana, enetxoak!

(Ingiari begira geldi bitez, buru makurka. Bitartean, atzeko atetik betor Yontxu, zorroz eta pardelez besoak eten beharrean).

IV.

LEHENGOAK ETA YONTXU.

PANTXIKE: *(Ingia ezkutatus)* Hor gure gizona!

MANTTONI: Hala ere! Bahator? Txoritan ibili al haiz, ala zertan?

*(Yontxuk begiratu bat begio, eran-
tzun gabe).*

PANTXIKE: Lasaia, ez bestelakoa! Ordu bete behar al duk kaletik etxera? Alderdi ederreko langilea hago, hire eskuz bizi izaterako!

MANTTONI: Lotsatu ere ez aiz egiten, lotsatu... arlote haundi hori?

*(Yontxuk, txintik ez: ekarri guziak
utz bitza mahai ganean, eta bi atso-
ei erakutsi bezakie atzealdea).*

PANTXIKE: *(Berriro aurpegiz itzularazten duela)* A, baina, txotxo..., hori guzia horrela uzteko asmoa al duk? Alajaina ... ! Atera niri berehala bildu horietako puskak, eta zein bere tokian ipini... Bizkor, gero!... *(Ahizpari)* Ikusten al dun!...

*(Yontxu, bilduak hustu ta guzia txu-
kun jaso ahala, axolagabekeriaz hasi
bedi txistu-joka).*

Eeee? Txistu-hotsak, gainera? (*Besteak ez entzuna*) Aditzen al duk, bai ala ez?... Donostiar koxkeroen kanta jator bat da hau: «Joxe Migelen batela»!

(Ahizpak, elkarri begira, zer esan ez dakitela)

MANTTONI: (*Isilune baten ondotik*) Ohea egin al duk, txepetx?

YONTXU: Ez.

MANTTONI: Ohea ba, aguro!... Aidean, esan diat!...

(Yontxuk buka beza lehengo lana, eta astiro abia bedi eskuinerantz).

Zer egin behar dun hik, Pantxike?

PANTXIKE: Ahuntza ateratzera noan.

MANTTONI: (*Yontxuri*) Inor etorriko balitz, Pantxike ahuntza larrarazten dela, eta ni berriz, kalean: aditzen?

(Bihoa Yontxu). (Isilunea)

V.

MANTTONI ETA PANTXIKE

MANTTONI: Doloretako Ama! Noizbait ere eramango ahal zizkigunan! Jakin dezagun baiezkoa ala ezezkoa.

PANTXIKE: Bakea har dezagun, zer dun gero hau!

MANTTONI: Eta kakalardo horren ateraldiak entzun al ditun?

PANTXIKE: Entzun!... Ilarra adinakoa ez dun-eta, horren gizondu beharra!

MANTTONI: Umekondo zelebrea! Besterik horrelako ez dinat egundaino ikusi.

PANTXIKE: Ez-eta «Totxolo»nekoa ere...

MANTTONI: Ez-eta «Totxolo»nekoa ere

(Bihoaz, atzeko atetik, Antzeztokia puxka batean hutsik).

(Urrutiratuz, haien oski-hotsa. Gero, atzeko atetik, Iñakik eta Xabierrek muturra erakuts bezate).

VI.

INAKI, XABIER ETA YONTXU.

IÑAKI: *(Hots itoaz)* leeup! Yontxu!

*(Iñaki eta Xabier sar bitez geldiro
eta isilka).*

YONTXU: *(Bere aldetik muturra azalduaz)* A!,
Zuek al zarete?

(Sar bedi berehala antzeztokian).

IÑAKI: Usain egiok, arren, sagar honi, kakalardo-
txo

YONTXU: *(Begiak haundi-haundi)* Uiii!... . Nor atxi-
tu duzue?

XABIER: Sortutako tokian, gizona: zuhaitzean!
Andre Manttonik goizero begietan zuen
huraxe duk...

IÑAKI: Har ezak, gixonerdi: hiretzako zekarkiagu.
Gu, aurretik ordainak jasota gaudek.

(Yontxuk sagarra har beza)

XABIER: Manttonik hartu behar duen bihotzondo-koa!

IÑAKI: A, zer nolako aurpegi-luzatzea, harena!

YONTXU: Jontxo! Ederra zegok!

IÑAKI: Arraio tripazaia! Andre Manttoni gajoari baino probetxu hobea egingo al dik

XABIER: Gogoratzen al zaik, pastela jan genio-
nean?

IÑAKI: Demonio, tuntuna hi berriz! Katuak jan zian eta!

(Guziek barre-algara)

YONTXU: Hori katu bihurria, etxe honetakoa!,
eee?

XABIER: Arraio berritsua! Gure atsoen aurrean ez duk izaten horrelako etorria

IÑAKI: Je, je, je! Izan ere, hori aurpegia ekarri du gizarajo honek, arestian! Bazirudian praile sartu behar zuela... Ea, esaiguk, esan: zer egin ziotek etxekoandreei?

YONTXU: Hutsa... Berandutxo etorri kaletik.

IÑAKI: Eta nora aldegin diate bi sorgin horiek?

YONTXU: Pantxikek, ahuntza ateratzera; Manttonik, kalera.

IÑAKI: I, Xabier: ez al zaik iruditzen guk lehen asmatutako ipuinak darabilkiela andre Manttoni?

YONTXU: Zer ipuin, zer ipuin?

IÑAKI: Hara, esango diat.

(Elkarren hurbil bitez)

XABIER: Gogoan al duk hik, noiz ezkerro gauden etxe honetan?

IÑAKI: Utzi orain, honi esan arte... *(Bat-batean atzera begira beza, urduri)* E! Ixo! Bazetozek.

(Hitza baino arinago osten bitez: Xabier, atzeko atetik, horma-hormari itsatsita; Iñakik leihotik jauzka egin beza; Yontxu, eskuinetik. Berehala, atarian, ahizpa bien ahotsa, eta, tarteka, bi gizonezkoena.)

Sar bitez, herriko eta Donostiako alkateak, Pantxike eta Manttoni).

VII.

HERRIKO ETA DONOSTIAKO ALKATEAK, MANTTONI ETA PANTXIKE.

PANTXIKE: Lotsa-lotsa eginda gatoz, Alkate jauna (*Donostiakoari*) Gure etxe apal honetara beurok bezalako haundikiak etortzerik...

MANTTONI: Etortzea asmatzerik ere..., egundo!

DONOSTIAKO ALKATEA: Beraz, hiru umezurtz ibili dituzte andre agurgarri hauek?

HERRIKO ALKATEA: Hiru, jauna, hiru: Mendiburutar Iñakitxo, Alkortatar Xabier, ta bestea, zera...

DONOSTIAKO ALKATEA: (*Entzuten ez dioelarik*) Eta, agi danez, etxeko-andre begikook, langile horrek ez dizue eman poz haundirik...

MANTTONI: (*Indar haundirik gabe*) Oi!, gu oso pozik ginen, Alkate jauna, oso pozik...

PANTXIKE: Bai; egia esan, gu txoratzen egon gara. Lehenbaitlehen aldegin dezaten

eskatzea, gure adinaren nekearengatik izan da.

MANTTONI: Nekearengatik, jauna: ez baitugu ohiturarik...

PANTXIKE: Hori, hori: ez baitugu ohiturarik... Izan ere, hemengo iskanbilak, hemengo iraul-beharra!...

MANTTONI: Eta esango bagenuke, alegia, osasunak aldi luzexeagoa eskatzen ziela... Orduan ez legoke zer esanik. Baina, ikusiko dituzue, ikusiko!

PANTXIKE: Oso daude onik: borobildu dira poliki!.

DONOSTIAKO ALKATEA:- Ez, eta, bidezkoa da, gainera: hobeto ibili direnak lehenago alde egitea. Gure diruak ere urritzen doaz, gero!... Baina, zuek, hainbeste nekeen ordainez, haur horien alde egindakoa, benetan aipagarria da. Ez al da hala, Alkate jauna?

HERRIKO ALKATEA: Bai noski. Hamaika bider entzun didate.

DONOSTIAKO ALKATEA:- Nik ere, inor bidali baino, neronek etorri nahiago izan dut, haurrok

jasoaz bat, zuei, nire eta Donostiako Udala-
ren izenean, eskerrik beroenak erakustera

*(Alkatea eta ahizpa biak eme-eme
dagozkio, haren hitz guzietan agurka
eta baiezka).*

Herriko alkate jaun agurgarriari lehentxeago eman diot zuentzat idazkitxo bat. Bigarren hamabostekoaren ordaina.

HERRIKO ALKATEA: *(Pantxikeri idazki txiki bat luzatuz)* Hortxe dago dena, xuxen-xuxen, ustez: ikustazu. Hamabost egunekoa ez ezik, hamaseikoa ere badago. Dagonilak hogeita hamaika ohi dituenik, ahaztu niri, alajaina! Hogeita hamaika eskutik eta jokoa galdu? *(Kar-kar-kar barre eginez)* Zer deritzozu, adiskide ona?

(Atzeko atetik, Iñakik eta Xabierrek, lotsa-antxean, sudurra azaldu bezate).

VIII.

LEHENGOAK, IÑAKI TA XABIER.
BEREHALA YONTXU.

MANTTONI: Hara, hortxe dituzue gure poxpolin gaixoak... Sar zaitezte, sar maiteok!.

PANTXIKE: Etorri, beldurrik gabe, gure bildotxok... Ikusi hemen Donostiako Alkate jauna, zuek jasotzera etorria.

(Iñaki ta Xabier sar bitez).

DONOSTIAKO ALKATEA: *(Begiratu ere gabe)* Bai, benetan, guri-guri egin dituzue. Gertu ditzateke berehala beren pardeltxoak. *(Mutikoei begiratzuz)* Baina, hiru ez zenituzten bada?

MANTTONI: Bai jauna, bai. Txikiena hor barruan dabil. *(Eskuineko atea zabalduz)* Eup, Yontxu, hator, bihotza, ator!... *(Berriro erdira etorriz)* Gixaxoa! Amarik ez du. Ezagun ere bazuen, etorri zenean, dena zikinak jana...

IÑAKI: *(Ahopeka Yontxuri)* Bagoazek hemendik ospa, hi...!

DONOSTIAKO ALKATEA:- Hator honantza, txiki. Eta hirurok txintxo-txitxo entzuniezadazue. Negarrik ez egin, gero? Andre on hauekin oporraldi ederra botea duzue. Orain, zuen etxeetara itzuli-garaia etorri da. A zer nolako gertaldi politak izango dituzuen, etxekoei ta laguntxoei esateko! Ez al da hala? (*Besteei*) ikusten dituzue? Geldi-geldirik; erneerne?... Hiru gizontxo diruditela? Hauek dira benetan mutiko txintxoak! Guziak horrelakoak izan bagenitu, ez al da egia, Alkate jauna? (*Mutikoei berriro*) Ea, bada: zoazte orain gertutzera. Luzaroko lana izanez gero, gu joan gaitezke, eta zuek (*ahizpei*) Udaletxera ekarriko dituzue...

IÑAKI: (*Bixi-bixi*) Ez, ez, berehala bilduko dugu guzia. (*Beste biei*) Goazemak axkar, mutiak!

*(Zalaparta bizian bihoaz
eskuinaldetik. Zurubian gorako
iskaribila entzun bedi puska batean,
hurrengo hitzen tarteka).*

IX.

MUTIKOAK EZ GAINERAKOAK.

DONOSTIAKO ALKATEA:- Txerren horiek nahiko lan emango zizuten, bai sinisten dut ...

MANTTONI: Nahiko lan... Hara, jauna, egia esango badut, bai: nahiko lan, eskua bete lan, eman digute. Baina, ez al genuen horrenbeste eraman behar gixagaxoengatik?... Ez irabaziarengatik, sinistu beza: kontu garbia egitez gero, garenetik aritu gara...

PANTXIKE: Egia huts-hutsa: ikusi beza bestela. *(Ingi bat luza bekio: lehentxeago kontuak ateratzen ari izan direnekoa)*

DONOSTIAKO ALKATEA:- *(Begiratu gabe papera itzuliz)* Andre gaxoak, andre gaxoak! Nola, behar bezala, eskerrak eman zuei, hainbesteko ongina ta nekeen ordainez?

PANTXIKE: *(Lehengoari jarraituz)* Esan bezala: ogia, esnea, ikatza, babarruna, olioa..., horiek guziak ordainduz gero, zenbat gelditzen da? Eta, ez dago!; noizean behin,

okela ere eman behar zitzaion. Iturriko ur garbiez ez dira, gero, morrosko horiek hazitzen! Eta, sinistu beza, jauna: herri honetan, mardultxoenetakoak gureak aterako dira, eta hori gu baino aberatsagorik hainbeste dagoela...

MANTTONI: Haurrik artu nahi izan ez dutenak gogoratu bakoitzean!... Erretzen jartzen naiz gero!... Arbidenekoak eta.... Begierrenekoak, eta ... ; zer deritzo, Alkate jauna?... Eta... zuk eta nik dakigun beste hura, hiru etxeren ta nik al dakit zenbat soroen jabe den hura!

*(Herriko Alkatea urduritzen hasi da.
Burua astintzen du, eta begiak
honantz-harantz darabiltza)*

DONOSTIAKO ALKATEA:- *(Manttoniren etorria eba-
kiz)* Tira, ba! Zer egingo zaio? *(Eskuak igur-
tiziz)* Guretzako poz haundia da, behintzat,
zuek bezalako kristau errukiorrak ezagutu
ahal izatea. Ez al da hala, Alkate jauna?

HERRIKO ALKATEA: Bai, ene adiskide, bai: jende zintzorik ere badugu herrian!

(Mandio-aldean gero ta zarata haundiagoa. Behekoak noizik behin burua habera jaso bezate, urduri).

DONOSTIAKO ALKATEA: *(Ahobeteka)* Nire adiskidea, donostiar-kume horiek herri txiki honetan oporraldi egitea, gizartearekiko garrantzi haundikoa da. Ez bakarrik osasunari buruz. Hori ere ez da, noski, bazterrean uztekoa. Baina, beti ere, badakizu: uri buruaren eta gainontzeko herrien artean, halako elkar-gabea, halako ezinikusi sorra izaten da. Urtero, guk aurten bezala, elkarbidea emaniezazu: aste bete batzuk elkarrekin igaro ditzatela, alegia; eta orduan, elkar-ezaguera badator, badator, poliki-poliki... Orduan, guzien berdintasuna, guzien anaitasuna, askoz ere bertago ikusten dira... Zer gauza ederragorik, nekazari zintzo hauen besoetan gure olalangileen semeak ikustea baino?... Gizar-

tearen berdintasuna, gizartearen anaitasuna! A, etxekoandre agurgarriak! Asmo haundi horien alde, inork uste baino lan bikainagoa egin duzute hilabete honetan!...

MANTTONI: *(Zer esan ez dakiela).* Bai, jaun, bai... Hala uste dugu, behintzat

(Hiru mutikoak eskuinaldetik sar bitez, beren bilduak eskuan dituztela)

X.

LEHENGOAK ETA HIRU MUTIKOAK BERRIRO.

PANTXIKE: Gauza guziak jaso al dituzue?

IÑAKI: Bai, andrea, bai.

MANTTONI: Ez al da hobe izango, nik, gora joan-etorri bat egitea?

XABIER: Ez zaigu ezertxo ere ahaztu!

MANTTONI: *(Gorantz doala)* Ezetz?... Harrigarria litzateke horratik!

PANTXIKE: (*Mutikoei*) Nahaspil ederrik izango da hor goian

IÑAKI: Bai, zera, poliki-poliki ibili gara eta!... Dena txukun (*Xabierri zalantzez begiraturaz*) txukun samar... utzi dugu

DONOSTIAKO ALKATEA:- Nai baduzue, gero, mutikoak ordu-erdi baterako hemen uztea

PANTXIKE: Zertarako, jauna?... Hori gorabehera! Moldatuko gera Manttoni eta ni

MANTTONI: (*Sartuz*) Hara, hara! Banekien nik! Norena duzue alkandora zikin hau?

IÑAKI: Ez da nirea.

XABIER: Ez nirea ere.

MANTTONI: Hirea duk, beraz, Yontxu? (*Lotua askatzen diola*) Gaxoa! Nola lotu duk partel han hain estu?

DONOSTIAKO ALKATEA:- Tira maiteok. Etxekoandre maitagarri hauei agur esaiezuee, eta eskerrikasko.

IÑAKI eta XABIER: (*Atso bien lepora jauzi eginez, alaiki eta maitez*) Agur, andre Pantxike... Ikusi arte, andre Manttoni... (*Yontxu ere, bestean lehian, zarataka hasten da: hiru-rok batera hitz egin bezate*) Asko gogora-

tuko gara zuetaz! Idatziko dizuegu noizean behin... Donostiara etorriko, gu ikustera?... Oiloen berri guri bidaliko? ... Eskerrikasko, andre Pantxike... Mila esker, andre Manttoni... Agur, agur, agur... Ikusi arte ... Datorren urtean, berriz... Idatzi, gero!... Agur ... Agur! ...

PANTXIKE: Baina, gizontxoak, isilduko zarete?... Hara, Donostiako Alkate jauna itxoiten dagozue.

MANTTONI: Trenean txintxo joan, gero!

PANTXIKE: Burua leihotik atera gabe!

MANTTONI: Esanak txuxen eginez

PANTXIKE: Zerbait ahaztu bazaizue, bidaliko dizuegu.

MANTTONI: Bai: berehalaxe bidaliko

DONOSTIAKO ALKATEA:- Agur, bada, andre begiragarriak: ikusi arte.

PANTXIKE: Lagunduko diegu bideraino.

HERRIKO ALKATEA: Zatozte axkar, mutikook!

HIRUROK: (*Garrasika, pardelak bizkarrean dituztela*) aufaaa, bagoaz ...! auffaaa, bagoaz!, auffaaa, bagoaz!... Donostiara!... Donosti

ederrera!... Kaletan ikuiluak eta behiak ikustera!!.

IÑAKI'REN HOTSA: Hara! ikusten al duk Yontxu, negarrez?

MANTTONI: (*Irtenaz*) Negarrez!... Zeri negar, nire Yontxu?

PANTXIKE: (*Donostiako alkateari, irteterakoan*) Jauna, gaurko eguna bezalakorik, sinistu beza, hogeitamar urte biok bakarrik bizi garela, eta...

*(Esaldi horren azkena gal bedi.
Herriko Alkatea irten bedi azkena.
Ahots-zarata nahasia: mutikoena nagusi. Urrutixeago, kantari hasi dira. Guzia mailka-mailka isiltzen).*

XI.

PANTXIKE TA MANTTONI.

(Ahizpa biak itzuli datoz. Aretoan, batetik bestera, noragabeki, bebil-tza, zerbait lani eskua ezarri nahika

bezala. Pantxikek azkenik, ezarian bezala, Alkateak emandako idazkia urratu beza).

MANTTONI: *(Zerbait esan behar eta ...)* Donostia-ko Alkateak izena nola duen ere?...

PANTXIKE: Manterola, uste dinat...

MANTTONI: Zuria dun, ala beltza?...

PANTXIKE: Erretore jaunak dionez, zuri samarra...

(Isilunea)

MANTTONI: Oraingoan bakea dinagu, Pantxike...

PANTXIKE: Bai... Noiz edo noiz, horratik... Bakea!

MANTTONI: Hau etxearen isiltasuna! Ahaztu ere egin zitzaidanan, lehen hala zenik...

PANTXIKE: Oraintxe atseden pixkabat har zezake-nagu.

MANTTONI: Egia, Pantxike, egia...

(Isillunea. Gero, Pantxike aterantz bihoa)

MANTTONI: Nora hoa?

PANTXIKE: Atea ixtera, Manttoni.

*(Manttoni atzetik dihoakio, eta biak
pixka batean geldi bitez, atarira
begira).*

MANTTONI: Goialde hori ere txukundu beharko
dinagu, bada

PANTXIKE: Bai: ikusgarria egongo dun.

MANTTONI: Guzia azpikoz gora.., oheak egin
gabe...

PANTXIKE: Jesus, mila bider!

(Isilunea)

MANTTONI: *(Ikaraldi)* Pantxike!

PANTXIKE: Zer dun?

MANTTONI: Ez al dun ezer entzun?

PANTXIKE: Hik bai, Manttoni?

MANTTONI: *(Bihoa leihora)* Ez... Haizea zunan,
noski...

MANTTONI: Oraintxe, eulia ere suma liteken
hegaka

PANTXIKE: *(Alabeharrez bezala, zerbait antolatze-
ra doa, baina bat-batean itzul bedi).* Zerga-
tik dion hori?

MANTTONI: *(Ametsetan bezala)* Ezer esan al
dinat?

*(Isilunea berriro. Bat-batean, atea
zabaltzen da. Ahizpa biak batera
itzuli dira, hotsak ikaraturik. Andre
Madalen sartzen da).*

XII.

LEHENGOAK ETA ANDRE MADALEN.

PANTXIKE: *(Gogait-antzean)* Aaa!... Madalen
dun...

ANDRE MADALEN: *(Harrituta)* Oiii... ! Zer duzue?

MANTTONI: Ezer ez. Zer izatea nai duzu?

ANDRE MADALEN: Ikaratu egin zaretela esango
nuke...

PANTXIKE: Nola ez ba?... Atea horrela zabalduz
gero, hildakoa ere zutituko litzateke!

MANTTONI: Garai honetan ez zara etorri ohi, eta...
horrexek egin digu.

ANDRE MADALEN: Etxeberrira nindoan, bada, eta
zuen aurretik igarotzerakoan: «sartu-atera
bat egin dezadan»: egin diot nire buruari.
Agi danez, mutikoak eraman dizkizute ...
?

PANTXIKE: Badakizu dagoneko?

ANDRE MADALEN: Ikusi egin baititut, honantza
nentorrela. Ez zeramaten negargura haun-
dirik. Garrasi bizian, txoro batzuk bezala,
kantari zihoazen...

MANTTONI: Benetan? (*Isilunea*) Txikia ere bai?

ANDRE MADALEN: Bai: txikia ere, besteak bezala-
xe.

PANTXIKE: Txikia ere bai!

ANDRE MADALEN: (*Inguru-begika*) A zer nolako
hutsunea, hemendik aurrera!...

PANTXIKE: (*Bere burua indarbehartuz*) Bakea,
bakea galanta, Madalen...

MANTTONI: Horixe bai!

PANTXIKE: Lehen, izerdi bizitan goizetik gauera,
mutil kozkor hoiek zirela-eta.

MANTTONI: Eta otorduak bostentzako, biontzako ordez!...

PANTXIKE: Eta etxe guzia azpikoz gora ...

MANTTONI: Lokatza eta zikina non-nahi ...

PANTXIKE: Bazeneki..., zer kalte egin diguten!

MANTTONI: Aulkiak porrokatu...

PANTXIKE: Katiluak hautsi...

MANTTONI: Eta, lotarakoan, berebiziko iskanbila...

Bederatziak bitarteraino ere, inoiz!

PANTXIKE: Bederatzi-hamarrak arteraino...

MANTTONI: Eta, lanean, ez gero uste asko laguntzen zutenik...

PANTXIKE: Patata-ateratzera eta babarrun-zuritzea, ozta-ozta...

MANTTONI: Gero, borroka gorrian ari zenitun beti...

PANTXIKE: Borroka gorrian beti, bi zaharrenak batez ere...

MANTTONI: Haien zarataz, elkarri ezin entzunez egoten ginen askotan.

PANTXIKE: Iskanbila bizia, goizetik gauera!

MANTTONI: Gelditu gabe, ordea!

PANTXIKE: Belarriak gortu beharrekoa!

MANTTONI: Iskanbila.... iskanbila..., nolakoa gero?

PANTXIKE: (*Zoratu balitzaio bezala*) Iskanbila.... iskanbila..., (*Bat-batean, isildu bitez. Isilune astuna*)

ANDRE MADALEN: (*Haien etorria eten ezinik aritu ondoren*) Tira bada! Guziak du munduan azkena. Oraingoan, bake ederra irabazirik zaudete. Hala hobe. Poztutzen naiz... Agur gaurkoz, enetxoak: banoa.

MANTTONI: Etorri, gero, hurrena ere, Madalen?...

ANDRE MADALEN: Gaur, honezkero, ezin. Senarra gero eta makalago daukat. Baina, bihar, eguerdi artean...

PANTXIKE: Etorri, bada, bihar eguerdi aldera...

MANTTONI: Eta, bestela, gu joango gatzaizu, ikustera.

PANTXIKE: Baita, baita: gu joango gatzaizu...

ANDRE MADALEN: Ederki; zain egongo nauzue. Eta esango didazue, gaur, afaitarako, mahaia ez al duzuen hutsegi aurkitu...

MANTTONI: Hutsegi? Oi! Zergatik?

PANTXIKE: Hutsegi? Horiek ateraldiak, Madalen!

ANDRE MADALEN: (*Irteterakoan*) Nik baibaitakit gauza horien berri. Etxean sei haur izan ditugu. Hiru, hil egin ziren. Beste hirurak,

ezkondu. Eta, orain, orain... Baina, utz dezagun... Hobe da. Bihar arte, beraz. (*Bihoa*).

XIII.

PANTXIKE ETA MANTTONI.

(Ahizpak lelotuta gelditu dira ate-aurrean. Batbatean, haizealdi zakar batek mahai-gaineko paperak sakanatuko ditu).

MANTTONI: *(Burua itzuliz)* Zer zeraman haizeak?

PANTXIKE: Haizeak zer daraman?

MANTTONI: A!... Dirua dun, noski.

PANTXIKE: Izan ere: dirua. *(Begira biezaio, eskurik luzatu gabe)* Jaso ezan, Manttoni

MANTTONI: Jaso ezan erorrek.

(Leihora joan, eta itxi bezate. Pantxikkek dirua jaso, eta utzi beza lehen bezala, maha gainean. Manttonik

*ilzuli datorrela, itzalgaizka, begiak
lehortzera egin du).*

Zenbatu ere egin beharko dinagu, bada,
diru hori...

PANTXIKE: *(Urrutitik bezela)* Zenbatu dezagun,
bai

*(Bata bestearen aldamenka, antzerki
hasieran bezala, jarri dira; baina
dirua eskukatzen dihardute, zenbatu
beharrean. Halako batean, Pantxi-
ke'k ere begiak lehortzen ditu).*

MANTTONI: *(Ahizpari zorrotz begiratuaz)* Zer dun,
Pantxike?

PANTXIKE: *(Bere onera itzuliz).* Zer..., zer..., Zer
dio?...

MANTTONI: Zera..., hutsa... Iruditu... egin zai-
dan...

*(Hotsa, utarrian, ito, egiten zaio.
Dirua zenbatu naihian hasten da).*

PANTXIKE: *(Lehen Manttonik bezala begiraturaz)*

Zer darabilkin gogoan, Manttoni?

MANTTONI: *(Lotsakor)* Nik?... Hutsa, hutsa... Ezer ez... *(Isilunea)* Eta hik, Pantxike?

PANTXIKE: *(Berdin)* Hutsa... Hutsa, Manttoni!...
(Ekin biezaiote orain, bero-bero, diru-zenbatzeari)

(OIHALA BEHERA, ASTIRO)

OHARRA: Emakumezko hutsentzat erraz tajutu liteke. Herriko eta Donostiako alakateak bihur litezke, esate baterako, EABko Lehendakari; eta hari horretara ikutu, aldatu beharrak liratekeen esaldiak.